

Arabako Mendialdea “Wildlife Economy” proiektu europarraren barruan sartuko da Foru Aldundiaren eskutik

Josean Galerak iragarri du Arabako Aldundiak parte hartuko duela Holandarekin, Belgikarekin, Suediarekin eta Alemaniarekin batera, natura balioetan eta baliabide ekoturistikoetan oinarrituriko Arabako Mendialdearen garapen ekonomikoa balioztatuko duen proiektu batean

Nazioarteko aditu taldeak hilabete honetan eskualdeko lehengo asfalto meategiak, Vasco-Navarro burdinbideko ibilbide berdea eta Izkiko Parke Naturala bisitatuko ditu, Mendialdeko beste baliabide batzuez gainera

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 6a. Arabako Mendialdeko Kuadrilla eta bertako natura baliabideak ‘Wildlife Economy’ proiektu europarraren barruan sartuko dira. Hartan Arabako Foru Aldundiak parte hartzen du, Holandarekin, Belgikarekin, Suediarekin eta Alemaniarekin batera. Ekimen europar bat da, oinarri duena natura aktibo ekonomiko bat den eta tokiko garapena sustatzen duen uste sendoa, Josean Galera Ingurumen Saileko foru diputatuak Arabako Batzar Nagusien osoko bilkuran adierazi duen bezalaxe.

“Proiektu europarraren helburua izango da esperientzia arrakastatsuek partekatzea eta ezagutzea nazioarteko beste bazkide batzuekin, eta ekintza lerro estrategikoak identifikatzea Arabako Mendialdearen gizarte eta ekonomia garapenerantz aurrera egiteko, bertako natura baliabideak eta horiekin loturiko baliabide ekoturistikoak balioztatuz eta indartuz”, adierazi du Galerak.

Testuinguru horretan, azaro honen 27an eta 28an, Vitoria-Gasteizko Europa Batzar Jauregian ‘Wildlife Economy’ proiektuko bazkideen elkarretaratze bat egingo da. Hartan, Arabako Foru Aldundiak Arabako Mendialdea ezagutzera emango du, hitzaldiak, lantegiak eta eskualdeko ahalezko baliabide natural eta ekoturistikoaren bisitaldiak direla medio.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

Hain zuzen ere, eskualdeko lehengo asfalto meategiak, zeinaren lehengoratzean lanean ari baita Arabako Aldundia, Izkiko Parke Naturala eta Vasco Navarro burdinbideko ibilbide berdea, urtero 220.000 txirrindulari eta bidazti baino gehiago erakartzen dituen, izango dira nazioarteko aditu taldeak bisitatuko dituen leku adierazgarrietako batzuk.

“Proiektu honek aukera emango digu beste herri batzuetako jardunbide egokiak ikasteko, naturatik eta basa bizitzatik abiatuta, eta erakutsiz garrantzizko estrategia ekonomiko bat dela, berritzailea, bideragarria eta erakargarria”, esanez bukatu du Arabako Ingurumen Saileko foru diputatuak.

‘Wildlife Economy’k, guztira, 1,2 milioi euroko aurrekontua du. Kopuru horretatik, Arabak 184.876 euro kudeatuko ditu, % 85ean Europar Batasunak finantzaturik.